

DEFENDATZAILEAK BABESTUZ

Experiencias africanas de protección
de personas defensoras de derechos humanos



▼ Parte-hartzaileei buruzko informazioa

Caddy Adzuba | Kongoko Errepublika Demokratikoa



Caddy Adzuba Kongoko Errepublika Demokratikoko **abokatu, kazetari, irati esatari eta aktibista** ezaguna da. **Kongoko Ekialdeko Komunikabideetako Emakumeen Elkarteko kidea** izanda, bere ibilbide profesionala giza eskubideen defentsan eta bakearen eraikuntzan hartutako konpromisoagatik nabarmentzen da, bai eta prentsa eta adierazpen askatasuna defendatzeagatik, emakumeen kontrako indarkeria bistaratzeagatik eta infantziak soldadu gisa erabiltzea salatzeagatik ere. Bere lan nekaezinak eta nazioartean izandako oihartzunak **hainbat errekonozimendu** ekarri dizkiote, hala nola Julio Anguita Parrado Nazioarteko Kazetaritza Saria 2009an eta Asturiasko Printzea Saria 2014an.

William Amanzuru | Friends of Zoka, Uganda



William Amanzuru **ingurumen eskubideen defendatzaile ugandarra** da eta **Friends of ZOKA** erakundearen sortzaile eta koordinatzailea. Adjumani-West Nile-ko baso erreserba zentraletan ilegalki egiten den ustiapena geldiarazteko defendatzaile-lanak burutzen ditu. Zuzenbidean titulatu, Ugandako eta nazioarteko hainbat ingurumen-ekimenetan eta giza eskubideen aldeko ekimenetan lan egin du. Williamen lidergoa hainbat erakundek aitortu dute, horien artean 2018ko azaroko **DefendDefenders-ek Giza Eskubideen Defendatzaile** izendatu izana eta 2019an **Ugandan Giza Eskubideen Defendatzaileen Europar Batasunaren Saria** jaso izana.

Aminatou Haidar | Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa



Haidar Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoko giza eskubideen aldeko aktibista ezaguna da, gaur egun **Marokoko Okupazioaren Aurkako Saharako Instantziako presidentea**. Literatura Modernoan lizentziaduna, oso gaztetatik aritu da lurralde okupatuetako giza eskubideen urraketen eta autodeterminaziorako eta independentziarako eskubidearen aurkako borrokan. Saharar herriaren borrokaren sinbolik handienetako bat bihurtuta, bere aktibismoa askotan kriminalizatu da atxiloteten, espetxeratzeen eta kanporatzeen bidez. **Nazioarteko aitorten ugari** ere jaso ditu, besteak beste, **Robert F. Kennedy Giza Eskubideen Saria** (2008) eta **Nobel Alternatibo Saria** (2019).

▼ Parte-hartzaileei buruzko informazioa

Reine Alapini-Gansou | Nazioarteko Auzitegi Penala, Benin



Alapini-Gansou Benineneko jurista ezaguna da, gaur egun **Nazioarteko Auzitegi Penalaren epailea eta Bigarren presidenteorde** bezala ari dena. 12 urte igaro zituen **Afrikako Giza Eskubideen eta Herrien Batzordean**, Batzordeko presidente gisa eta giza eskubideen defendatzaileen egoeraren inguruko Aditu Berezi bezala. Giza eskubideen urraketak aztertzen dituzten **Nazio Batuetako komisioren kide** izan da eta Nazio Batuen eta Afrikako Giza Eskubideen eta Herrien Batzordeak egindako prozedura berezien lantaldeko buru izan da. Publikazio askoren egilea eta Benineko Abomey-Calavi Unibertsitatean irakasle izan da.

Phanice Odhacha | Protection International-Africa, Kenya



Phanice Odhacha Kenyako **emakumeen eta gazteengiza eskubideen defendatzaile** sutua da, Afrikan justizia ausardiaz defendatzen duten pertsona guztien eskubideen sustapenarekin konprometitua dagoena. Esperientzia sendoa du **diplomazian**, eta, **Protection Internationalen, Afrikarako eskualde-zuzendari** da gaur egun. Helburu sinple baina indartsua du: lankidetzaz, erresilientzia eta baliabideen mobilizazioa sustatzea, giza eskubideen lehen lerroko defendatzaileek mundu bidezkoago bat eraikitzeko funtsezko lanarekin jarraitu ahal izatea bermatuz.

Marthe Coulibaly | Boli Kostako Giza Eskubideen Defendatzaileen Koalizioa, Boli Kosta



Pédan Marthe Coulibaly giza eskubideen aldeko aktibista marfildarra da. 2005ean emakumeen eskubideak defendatzen zituen erakunde batean hasi zen lanean, eta, bertan, lehenik programen arduradun izan zen, **Boli Kostako Giza Eskubideen Defendatzaileen Koalizioko egungo koordinatzaile** bihurtu aurretik. **EPU Jarraipen Batzordeko koordinatzailea**, **AfricanDefenderseko** Zuzendaritza Batzordeko kidea eta **Mendebaldeko Afrikako Giza Eskubideen Defendatzaileen Sareko** Administrazio Kontseiluko kidea ere bada.

▼ Parte-hartzaileei buruzko informazioa

Daphne Jena | Urgent Action Fund-Africa, Zimbabwe



Daphne Jena mugimendu feministak eraikitzeko ikuspegietan hamar urte baino gehiagoko esperientzia duen feminista da. Daphnek **gizarte-mugimenduen arteko sareak sortu eta gidatzen ditu** Afrikako kontinente osoan. Komunikazioan, nazioarteko lankidetzan, harreman publikoetan eta proiektuen kudeaketan trebatuta, bere aktibismo-lana **intzidentzia politikorako** hedabide alternatiboen erabileran, kanpainen diseinuan eta filantropia feministan oinarritu da. Gaur egun, **Urgent Action Fund-Africa** erakundean Konpromiso Zibikorako, Genero Indarkeriarako eta Sexu eta Ugalketa Osasuneko Eskubide eta Justiziarako Defendatzaileak Babesteko Programaren arduradun seniorra da.

Mélanie Sonhaye Kombaté | Mendebaldeko Afrikako Giza Eskubideen Defendatzaileen Sarea, Togo



Mélanie N.D. Sonhaye Kombaté 2015etik **Mendebaldeko Afrikako Giza Eskubideen Defendatzaileen Sareko** Eskualde Idazkaritzan **programen eta intzidentzia zuzendaria** da. Zuzenbide ikasketak ditu, baita garapen iraunkorreko bi master ere. Giza eskubideen defendatzaileen babesean lan egiten du, bai eta Afrika Mendebaldean koalizioaren ekintzak koordinatzen ere. Aldi berean, erakundea ordezkatzan du bazkideen aurrean eta nazioarteko hainbat mekanismotan, besteak beste, **Giza eta Herrien Eskubideen Afrikako Batzordearen** ohiko bilkuren aurretik egiten diren GKEen foroko zuzendaritza-batzordean.

Seydi Gassama | Senegalgo Giza Eskubideen Defendatzaileen Koalizioa, Senegal



Seydi Gassama **ekonomialari eta aktibista senegaldar ezaguna** da, giza eskubideen defentsarekin duen konpromiso irmoagatik aitortua. **Amnistia Internazionalen Senegalgo ataleko zuzendari exekutiboa** da, eta **Senegalgo Giza Eskubideen Defendatzaileen Koalizioko burua**. Gizarte zibila indartzeko eta erreforma judizialen alde egiteko ekimenak zuzentzen ditu. Bere prestakuntza akademikoa barne Ekonomia Dakar Unibertsitateko maisutza eta Nazioarteko Kudeaketarako MBA bat. Gassamak literatura arloan ere lagundu du eleberri bat eta hainbat kontakizun labor argitaratuz.

▼ Información sobre las ponentes

Trifonia Melibea Obono | Somos Parte del Mundo, Ekuatore Ginea



Trifonia Melibea Obono Ntutumu **eleberrigile, politologo, akademiko eta LGBTIQ+ aktibista ekuatoguinearra** da. **Diziplina arteko Ikasketetan eta Berdintasun Politiketan doktorea** da, eta Nazioarteko Lankidetzaren eta Garapeneko Masterra du. Kazetaritzan eta Zientzia Politikoetan irakasle aritu zen Ekuatore Gineako Unibertsitate Nazionalean, eta gaur egun doktoratu ondoko beka bat du Duisburg-Esseneko Unibertsitatean, Alexander von Humboldt Fundazioak emana. **Idazle oparoa** da, eta hainbat eleberririk, kontakizun labur eta artikulu ugari argitaratu ditu. **Hiru aldiz izan da saritua:** «Justo Bolekia Boleká» Afrikako Literaturaren 2018ko Nazioarteko Saria Las mujeres hablan mucho y mal obragatik; GLLI 2019 Global Literature in Libraries Initiative Saria La bastarda obragatik; eta Periplo 2023 Saria La hija de las mitangen bere azken lanagatik.